



DONOSTIAN

LGTBI+FOBIAREKIN

LOTUTA IZANDAKO

INTZIDENTZIEI BURUZKO TXOSTENA



2021 / 2022





Egilea:

Zaira García Dafonte

Koordinazioa:

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoa

Diseinua eta maketazioa:

Ytamos Graff S.L.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Giza Eskubideak
Derechos Humanos





AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Sarrera	7
Orientabide batzuk	8
Emaitzak	10
Ondorioak	22
Gomendioak	25
Erreferentziak	29
Eranskinak	
1. Glosarioa: LGTBI+ kontzeptuak eta kontzeptu juridiko-antropologikoak	30
2. Intzidentziak jasotzeko txantiloia	35
3. Datu grafikoen taulak	36





Hitzaurrea

Donostiak izaera kosmopolita, irekia eta abegitsua izan du beti. Gure kaleak gizartea osatzen duen aniztasunaren elkarbizitzarako lekuak dira, eta aurrerantzean ere hala izan behar dute. Eta nola ez, LGTBI+ pertsonen errealitatea ez da gure gizartearekin zerikusirik ez duen zerbait, kontrakoa baizik; gizartearen izaera anitzaren berezko parte da. Gero eta aurrerapen gehiago egin dira LGTBI+ pertsonentzat berdintasuna, benetakoa eta eraginkorra, lortzeko, baina ahaleginean jarraitu behar da, eta horrek denbora, esfortzua eta iraunkortasuna eskatzen ditu.

Donostiako Udaleko Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibilen Zinegotzigoak konpromiso argia du LGTBI+ kolektiboarekin: erabateko berdintasunerako, duintasunerako eta sexu- eta/edo genero-identitatea askatasunez garatzeko eskubidearen defentsa garbia. Horregatik, LGTBI+ eskubideak zabaltzeko eta babesteko ekintzak egiten ditugu, azken finean, giza eskubideak baitira, gizartea kontzientziatzen laguntzen duten jarrerak sustatuz, gure pentsamoldea benetan aldatzeko eta askeago bihurtzeko.

Gauzak horrela, ekintza horien barruan egin dugu Donostian LGTBI+fobiako intzidentziei buruzko txosten hau. Dokumentu honetan, hainbat hedabidetan salatu eta erregistratu diren egoerak jasotzen eta aztertzen dira. Egoera horiek eraginkorrago jokatzen lagunduko dute, LGTBI+ pertsonen aurkako mehatxuak, irainak edo erasoak bertan behera gera daitezen.

Hala ere, esperientziak esaten digu eraso eta irain asko ez direla salatzen, beldurragatik, estigmatizazioagatik edo ezjakintasunagatik. Baina salaketak baliagarriak dira LGTBI+fobia kuantifikatu eta aztertu ahal izateko. Hori dela eta, dei egin nahi diet LGTBI+ izateagatik beren eskubideen aurkako erasoren bat jasan duten pertsona guztiei, gertatutakoa salatu dezaten, haientzat errazena den modua erabiliz (Berdintasun Saila, Berdindu, Udaltzaingoa, Ertzaintza, LGTBI+ elkarteak...).

Denon artean, ziur nago LGTBI+ pertsonekin are lagunkoiagoa izango den hiri bat lortuko dugula. Hau da, hiri berdinzaleagoa eta bidezkoagoa.

Ane Oyarbide Ochoa

Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria





SARRERA



Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak aginduta egin da dokumentu hau, 2021. eta 2022. urteetan Donostian LGBTI+fobiaren ondorioz gertatu diren intzidentziak, erasoak, diskriminazioak eta gorroto-delituak biltzeko asmoz.

Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2021eko txosteneko datuek agerian uzten dute horrelako intzidentziak aztertu beharra dagoela; izan ere, 2020tik 2021era, % 46 handitu dira sexu-orientazio eta -identitateagatiko gorroto-delituak, eta bigarren kausa dira jadanik. Era berean, Espainian 2021ean izandako gorroto-delituaren bilakaerari buruzko txostenak ere erakusten du motibazio hori bigarren kausa dela estatuan, eta % 68,23 handitu dela 2020tik 2021era.

Gainera, Ikuspegik argitaratutako Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzeptzioak eta jarrerak azterlanean aipatzen da EAEko biztanleen % 50 izan dela iruzkin LGBTI+fobikoen lekuko, % 42,5 irainena, % 22 LGBTI+ pertsonen bakartzearena, % 17,9 mehatxuen eta % 13,5 eraso fisikoena.

Informazio horrek eta datuen igoerak agerian uzten dute egoerak behar bezala erregistratu eta aztertu behar direla, *ad hoc* erantzunak diseinatzeko.

Dokumentu honetan ez da aipatzen gertakariaren biktimak edo egileak identifika ditzakeen daturik, eta, beraz, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna errespetatzen dira.

Hala ere, azpimarratu behar da errealitatea interseksionala dela, eta, beraz, hala eraso egiten duten pertsona batzuei nola biktima batzuei hainbat ezaugarri eragiten dietela, zeharka, eta horiek zapalkuntzaren kausa izan daitezkeela, hala nola: jatorria, kultura, adina, dibertsitate funtzionala, gizarte-bazterketa jasateko arriskua, eta abar.

Beraz, txosten laburra da hau, hirian sexu- eta genero-dibertsitatea garatzea zailtzen duten egoerak kuantifikatu eta irudikatzea xede duena. Deskribatzen diren gertakariak giza eskubideak erabat baliatzeko eta bizikidetzan lortzeko zer lan egitea falta den erakusten dute.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea, segur aski, hemen argitaratuak baino askoz intzidentzia gehiago izango direla. Dokumentu honetan, hala gizarte-entitateetan eta komunikabideetan nola erakunde publikoetan salatu direnak baino ez dira jasotzen. Beraz, beharrezkoa da infrasalaketaren fenomenoaren azaltzea eta kontuan hartzea. Era berean, azaldu behar da iturri bakoitzeko datu-bilketa desberdin egiten dela, eta, kasu batzuetan, ez dela zehatza; beraz, edozein ikerketatan bezala, azterlan honen emaitzetan ere bada nolabaiteko errore-marjina bat.

Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2021eko txostena

Espainian 2021ean izandako gorroto-delituaren bilakaerari buruzko txostena

Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa


¹ Dokumentuan, "egile" hitza erabiltzen da intzidentzia nork eragin duen adierazteko. Batzuetan, "erasotzaile" hitza ere erabiltzen da, eraso baita.



ORIENTABIDE BATZUK²

Mendebaldeko gizarteen egungo sexu-genero sistema hegemonikoa dimentsio hauen erlazioan oinarritzen da: **sexua**, **generoa** (identitatea eta adierazpena) eta **desira**. Hona hemen zer jotzen den arauaren barrukotzat eta zer ez:

SEXU-GENERO SISTEMA (hiru dimentsio: **sexua**, **generoa**, **desira**)



Sexu-genero sistemaren dimentsioak. 2023. Autoretza propioa (Kualitate Lantaldea eta Aldarte, 2018).

² Kontzeptu gehienak glosarioan definitzen dira (2. eranskina).



Beraz, cis pertsonak, gizarte-ingurunearen itxaropenen arabera genero-identitatea garatzen dutenak eta, gainera, heterosexualak direnak, onarpena eta pribilegioak dituzte gizartean. Hala ere, nabarmendu behar da faktore patriarkalak eragiten duela emakume-gizon rola bereiztea, eta emakumeak gizonen mende jartzen dituela. Era berean, arauz kanpoko aukera guztiek pairatzen dute desberdintasun hori.

Beraz, arauaren barruko aukerak bitarismoa, zisexualitatea eta heterosexualitatea dira, bai eta femininotzat hartzen dena maskulinoaren aurrean gutxiesten ere. Gizarte-sistema zisheteronormatiboa da, eta araua errepikatzen ez duten pertsonak baztertzen ditu, erasoak, diskriminazioak eta/edo bazterketak jasateko arriskua baitute.

Hala, bada, LGTBI+ sexu-disidentziak eta genero-disidentziak biltzen dituen kategoria analitiko gisa erabiltzen da. Argi dago sigla bakoitzaren errealitatea askotarikoa dela eta fikzio bat dela, etengabe aldatzen ari dena eta egoera asko biltzen dituen. Horrenbestez, LGTBI+ kontzeptua baliatuz, LGTBI+fobia kontzeptua erabil dezakegu, gorroto-delituak eta zisheterodisidentzien aurkako gaitzespen-, diskriminazio- eta bazterketa-gertakariak biltzeko.

Laburbilduz, txosten honen xedea 2021-2022 aldian hirian gertatu diren oinarri LGTBI+fobikoko intzidentzia guztiak dira, hau da, arau zisheterosexistan oinarritutako intzidentzia guztiak.





EMAITZAK

Honako emaitza hauek informazio-iturri hauei egindako kontsultetatik atera dira:

Iturriak

AMPGYL elkarte	Hiruki Larroxa kooperatiba
Bizigay elkarte	Donostiako Koordinadora Transbollomarifeminista
Donostiako Asanblada Feminista	Triángulo Euskadi Fundazioa
Gehitu elkarte - Eraberean sarea, arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko eta sexu-orientazio edo -identitateagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkakoa (Eusko Jaurlaritza)	Ikusgune. Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia
Magala Familia Homoparentalen Elkartea	Ozen LGTB Liga
Loratuz Lotu elkarte	Donostiako Piratak mugimendua
Naizen elkarte	EHGAM mugimendua
Sehaska Familia Homoparentalen Elkartea	TIRO mugimendua
Euskadiko Transexualitate Elkartea	Zizta mugimendua
«Trans emakumeen lan egoera EAEn» egin duen aholkularitza-enpresa	Euskal LGTBI+ Behatokia
	Bilgune Feminista Erakundea
	Gipuzkoako Berdindu Zerbitzua





Gizarte Ongizatearen atala
Donostiako Udaleko Gizarte
Zerbitzuak

Donostiako Udaleko Berdintasun
Bulegoa

Ertzaintza

Donostiako Udaltzaingoa

Justizia. Donostiako Biktimari
Laguntzeko Zerbitzua

Osakidetza. Euskal Osasun
Zerbitzua

Argia

Berria

El Diario Vasco

Donostitik

Irutxuloko Hitza

Naiz

Noticias de Gipuzkoa

Hurrengo tauletan 2021ean eta 2022an erregistratutako intzidentziak azaltzen dira . 2021ean 19 salaketa jarri ziren, eta 2022an, berriz, 18; beraz, guztira, 37. Salaketak intzidentziaren kausaren arabera antolatu dira, hau da, intzidentzia eragin duen fobiaren arabera³.

³ Egoerak labur-labur deskribatu dira. Deskribapen osoa 1. eranskinean dago. Intzidentzia kategorizatu da, eta ez biktimari; horrela, egiturazko kausak ikusarazten dira, eta fokua biktimarengandik kentzen. Adibidez, intzidentzia bat izan daiteke homofobikoa eta biktimaria homosexuala ez izatea, eta abar.



2021EAN DONOSTIAN GERTATUTAKO INTZIDENTZIA LGTBI+FOBIKOAK

KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIKIMAREN GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
21.3	02/2021	LGTBI BERDINDU ZERBITZUA	Egoitza-baliabidea ⁴	Ez dakigu	Bifobia	G ⁵	Ez dakigu	Beste egoiliar batzuek zis mutil bisexual batekin izandako egoera gatazkatsuak.
21.1	01/2021	EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Ez da jakinarazi	Derrigortzeak	Homofobia	G	G (Kop. zehaztu gabe)	Ez da jakinarazi.
21.2	02/2021	EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Ez da jakinarazi	Jazarpena, eraso fisikoa, derrigortzeak eta kalte materialak	Homofobia	G	G (9)	Bederatzi mutilek eraso fisikoak, jazarpena, derrigortzeak eta kalte materialak egin dizkiote beste mutil bati, gay izateagatik.
21.5	04/2021	EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Ez da jakinarazi	Jazarpena eta mehatxuak	Homofobia	G (2)	E	Emakume bat bi gizoni jazarri zaie, eta mehatxu egin die, haien sexu-orientazioarengatik.
21.8	06/2021	IRUTXULO KO HITZA	Parkea	Hitzezko eraso eta mehatxuak	Homofobia	G+E	G	Pertsona batek ezaguna zuen mutil gay bat iraindu, eta mehatxu egin dio: "marikoa", "marikoi izateagatik akabatuko zaitut", eta abar. Harekin zihoan neskari ere eraso dio.
21.9	07/2021	KOMUNIKABIDEAK ERABEREAN - GEHITU EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Birtuala	Hitzezko eraso eta diskriminazioa	Homofobia	G	G (4)	Plataforma birtual batean, lau donostiarrek zuzenean jardun dute borroka batean zenbat homosexual hilko lituzketen esanez.
21.10	07/2021	LGTBI BERDINDU ZERBITZUA	Bizilekua	Diskriminazioa	Homofobia	G	E	Mutil gay batek ezin du adierazi bere orientazioa, senideen estremismo erlijiosoa dela eta.
21.11	07/2021	KOMUNIKABIDEAK SARE SOZIALAK ERABEREAN - GEHITU EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Ostalaritza-establezimendua eta birtuala	Diskriminazioa eta hitzezko eraso	Homofobia	G (2)	Ez da jakinarazi	Bi gayen eta ostalaritzako establezimendu baten arteko ika-mikaren ondorioz, sare sozialetan honelako iruzkinak egin dituzte: "(...) elkarri eskua sartzen eta guzti ari ziren, zirriak egiten zituzten bitartean. Salaketa ederra jarriko ahal diete marikoi horiei, difamazioagatik. Zerriak izateaz gainera, pertsona txarrak».
21.12	07/2021	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Ostalaritza-establezimendua	Hitzezko eraso eta mehatxuak	Homofobia	G	G (5)	Bost mutilek mehatxu egin diote ostalaritza-establezimendu bateko langileari, eta iraindu egin dute: "marikoi zikina".
21.13	07/2021	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Merkataritza-establezimendua	Hitzezko eraso	Homofobia	G	G (2)	Bi mutilek adierazpen homofoboekin iraindu dute ehungintza-establezimendu bateko langile bat.

⁴ Egoitza-baliabidetzat jotzen dira gizarte-bazterketako edota mendekotasuneko arriskuan dauden pertsonen premiei erantzuten dieten aldi baterako bizitokiak edo bizitoki iraunkorrak, publikoak edo erdi publikoak.

⁵ G= Gizona eta E= Emakumea.



KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIKTIMAREN GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
21.14	08/2021	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Bide publikoa	Eraso fisikoa	Homofobia	G	G	Biktimak esan du ostiko bat eman diotela, homofobiagatik.
21.15	08/2021	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Bide publikoa	Eraso fisikoa	Homofobia	G (2)	G	Gizon bat bi mutil homosexuali fisikoki eraso egiten saiatu da. Biktimen lagunek eragotzi dute.
21.16	09/2021	EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Ez da jakinarazi	Eraso fisikoa eta hitzekoa	Homofobia	G	G (kop. zehaztu gabe)	Ez da jakinarazi
21.18	09/2021	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Bizilekua	Eraso fisikoa eta hitzekoa	Homofobia	G	G	Pisukide batek beste bati eraso dio, eta iraindu egin du, besteak beste, honelakoak esanda: "marika, ni gizona naiz eta zu ez; esaten dizudan zerbait gustatzen ez bazaizu, kalean lo egin beharko duzu".
21.19	11/2021	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Tren-geltokia	Eraso fisikoa eta hitzekoa	Homofobia	G	G (kop. zehaztu gabe)	Gizon batzuek ukabilkada bat jo diote bularrean biktimari, eta iraindu egin dute: "marikoi zikina", "beltz puta".
21.4	03/2021	E-MAILA ⁶	Trena	Hitzezo eraso eta mehatxuak	Transfobia	E	G (kop. zehaztu gabe)	Mutil talde batek trenean neska trans* bat beldurtu eta iraindu du: «marikoia», «ixo, zakila ahoari josiko dizut eta» edo «hemen ez, baina, festan harrapatzen bazaitu, akabatuko zaitut». Inguruko inork ez du biktima defendatu.
21.6	04/2021	LGTBI BERTINDU ZERBITZUA	Zerbitzu eta baliabide publikoak	Diskriminazioa	Transfobia	E	Ez dakigu	Emakume trans* batek dio zerbitzu publiko batzuetan ez direla errespetatzen hark emakume gisa dituen eskubideak.
21.7	06/2021	BERRIA	Birtuala	Tratu apalesgarria	Transfobia	E	G	Sare sozial ezagun batean, pertsona batek beste bat umiliatu du, eta haren transexualitate-egoera agerian utzi. Era berean, zalantzan jarri du haren emakume-identitatea.
21.17	09/2021	LGTBI BERTINDU ZERBITZUA	Bizilekua	Diskriminazioa eta mehatxuak	Transfobia	G	G+E	Biktimak, mutil trans* batek, trantsizio-prozesua hasi nahi du, baina gurasoek etxetik botatzeko mehatxua egin diote. Bere egoera azaldu zientetik, ez diote hitz egiten.

⁶ Biktimak zuzenean eman du gertakariaren berri ikerketaren helbide elektronikoan, berak parte hartzen duen erakundeak bidalitako mezu masibo baten ondorioz.





2022AN DONOSTIAN GERTATUTAKO INTZIDENTZIA LGTBI+FOBIKOAK

KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIKTIMAREN GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
22.7	05/2022	IRUTXULO KO HITZA	Hondartza	Tratu apalesgarria, hitzeko eraso eta mehatxuak	Bollofobia	Bollerak (Kop. zehaztu gabe)	G (Kop. zehaztu gabe)	Gizon talde batek bollera talde bati argazkiak atera dizkio hondartzan bainatzen ari ziren bitartean. Mehatxu eta irain ere egin die: "lesbiana putak", "nazka ematen duzue", "oka egiteko gogoa ematen duzue", "hain gutxi daukazue femeninotik", "segi artaziarena egitera", "puta alaeak"...
22.1	02/2022	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Bide publikoa	Eraso fisikoak	Homofobia	E (Kop. zehaztu gabe)	G	Jokabide homofoboa duen gizabanako bat kalean topatzen zituen emakumeei zaplaztekoak ematen hasi da.
22.2	02/2022	ERTZAINZA EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Bizilekua	Eraso fisikoa eta hitzekoa	Homofobia	G	G	Biktimari tratu txarrak ematen dizkio berarekin bizi den senitarteko batek, gay izateagatik. «Lotsagarria zara gure herriarentzat» eta halakoak esaten dizkio, eta eraso egiten dio, bultzadak eta kolpeak emanez.
22.8	07/2022	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Bizilekua	Eraso fisikoa eta hitzekoa	Homofobia	G	G+E	Bi gizon eta emakume bat borrokatu egin dira, bizikidetzara- arazoengatik. Gizonetako batek eta emakumeak beste gizona jo dute, eta alkandora hautsi diote, homosexuala izateagatik.
22.13	08/2022	DONOSTIAKO UDALTZAINGOA	Egoitza-baliabidea	Hitzeko eraso eta mehatxuak	Homofobia	G	G	Erabiltzaile batek honela dio beste bati: «Ni gela barruan nagoenean, hemendik alde egin behar duzu zuk, niri ez zaizkit-eta gustatzen zu bezalako homosexualak». Biktima mehatxatu du, eta labanarekin jolasean ibili zaio aurpegian.
22.15	09/2022	EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Bide publikoa	Mehatxuak eta hitzeko eraso	Homofobia	G	G (4)	Egoitza baten zuzendariak iradoki du egoiliarretako batek sexu-organoetan dituen markak bikotekideak egin dizkiola, gay izateagatik.
22.4	03/2022	ERABEREAN - GEHITU EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Egoitza-baliabidea	Tratu apalesgarria	Homofobia	G	G	El director de una residencia insinúa que las marcas en órganos sexuales que tiene uno de los residentes se las ha hecho su pareja por ser gais.
22.17	10/2022	ERTZAINZA EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Tren-geltokia	Eraso fisikoa eta hitzekoa. Mehatxuak. Lapurreta	Homofobia	G	G (2)	Bi gizonen mutil bati heldu diote, eta kikilarazi egin dute, esanez: "Ipurditik emango dizugu, zuri gustatzen zaizun bezala" Astindu bat eman, eta lapurtu egin diote.
22.18	12/2022	EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Bizilekua	Hitzeko eraso eta kalte materialak	Homofobia	G (2)	G	Bizilagun batek irain homofoboak egin eta kalteak eragin dizkie biktimei.





KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIKTIMAREN GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
22.5	03/2022	LGTBI BEREKINDU ZERBITZUA	Merkataritza-establezimendua	Diskriminazioa	Serofobia, homofobia edo lumafofia. Datuak falta dira zehazteko	G	E	Gizon bat optika batera joan da betaurreko batzuen bila, eta beharrezkotzat jotzen ez dituen hainbat gauza galdetu dizkiote, adibidez, GIBA duen.
22.6	04/2022	ERABEREAN - GEHITU EUSKAL LGTBI+ BEHATOKIA	Ostalaritza-establezimendua	Diskriminazioa	Enebefobia ⁷	G	G	Gaueko aisialdiko taberna batean sartzea ukatu diote gona jantzia zeraman gizon bati.
22.12	08/2022	DONOSTIAKO PIRATAK	Bide publikoa Gaueko aisialdia	Hitzezko eraso eta tratu apalesgarria	Enebefobia eta homofobia	Ez bitarra	G	Bitarrak ez diren hainbat pertsona dantzan ari zirela, gizon batek 100 € eskaini dizkie sexu-harremanak izateagatik, eta adierazpen homofoboekin iraindu ditu. Haiek erasotzaileari aurre egin, eta egoera kudeatu dute.
22.3	02/2022	LGTBI BEREKINDU ZERBITZUA	Enplegu-zerbitzu publikoa (Lanbide)	Ezjakintasuna	Transfobia ⁸	G	Ez dakigu	Trans* mutil bat lan-praktika batzuetan izena ematera joaten da bere izen berriarekin, eta hau esan diote: "praktikak direnez, izen zaharrenekin egin beharko dituzu".
22.9	07/2022	LGTBI BEREKINDU ZERBITZUA	Bide publikoa	Diskriminazioa	Transfobia	Denak	Ez dakigu	Kartel transfobo bat agertu da Urbieta kaleko markesina batean.
22.10	08/2022	DONOSTIAKO UDALA BEREKINTASUNA	Bide publikoa Gaueko aisialdia	Hitzezko eraso	Transfobia	G	Ez dakigu	Pertsona batzuek mutil trans* bat iraindu eta mespretxatu dute: «zure alu puta», «puta halakoa»...
22.11	08/2022	DONOSTIAKO PIRATAK	Bide publikoa Gaueko aisialdia	Giro baztertzalea	Transfobia	Ez dakigu	Ez dago	Trans* pertsona batek gaueko aisialdiko espazio batetik alde egin du, giroa deserosoa edota baztertzalea zelako.
22.14	08/2022	ERTZAINZA	Tren-geltokia	Eraso fisikoa eta hitzezkoa	Transfobia	G	G+E	Trans* mutil batek bi ezagunekin topo egin du, eta genitaletan ostiko bat eman eta iruzkin transfoboak egin dizkiote.
22.16	09/2022	LGTBI BEREKINDU ZERBITZUA	Herritarrei arreta emateko zerbitzu publikoa (Zuzenean)	Ezjakintasuna	Transfobia ⁹	Ez dakigu	Ez dakigu	Trans* pertsona bat Zuzenean zerbitzura joan da, izena aldatzeko izapidea egiteko asmoz. Kasu egin dietenek ez zituzten ezagutzen prozedura eta inprimakiak.

⁷ Enebefobia kontzeptua erabiltzen da aukera bitar hegemonikoak iraultzen dituzten egoera, adierazpen edota identitateekiko fobia gisa.


⁸ Transfobian oinarritutako egoera gisa kategorizatzen da, ulertzen baita erakunde publiko orok eta bertako langileek bermatu behar dutela trans* pertsonen eskubideen eta prozeduren erabateko ezagutza. Era berean, interesgarria da gogoeta egitea ezjakintasunaren kausak egiturazko transfobian oinarritzen ote diren.

⁹ 8. oharrean jasotakoaren pertzepzio bera




Jarraian, hainbat datu ematen dira, formatu grafikoan: bai aldagai bakarreko informazioa, bai aldagai gurutzatuak

Intzidentziak, guztira, hilabeteka (1. grafikoa)




Intzidentziak, guztira, lekuaren eta leku motaren arabera (2. grafikoa)




¹⁰ Nahasbidea ekar dezaketen grafikoak baino ez dira azaltzen.



Intzidentziak guztira, kausaren arabera (3. grafikoa)




Intzidentzien ehunekoa, intzidentzia-eraso motaren arabera (4. grafikoa)




Intzidentziaren egilearen generoa, guztira

(5. grafikoa)




Ehunekoa, egileen generoaren arabera

(6. grafikoa)




Erasoa edo intzidentzia eragin duten 58 pertsonetatik¹¹ 45 gizonak dira, 6 emakumeak, eta 7 kasutan ez dakigu generoa zein den (5. grafikoa). Kasuaren arabera ehunekoari dagokionez, egoeren % 62an egileak gizonak dira, eta horietatik % 9,7k taldean jardun dute. Bestalde, kasuen % 8an emakumeak dira egileak, eta % 8an bi generoak. Kasuen % 18,9an ez dakigu generoa zein den, eta % 2,7an ez dago generorik, giroa deserosoa delako.

Egilearen generoaren eta kausaren arteko erlazioa (7. grafikoa)






Egilearen generoaren eta intzidentziaren tipologiaren arteko erlazioa (8. grafikoa)




Egile gizonezkoa eta intzidentziaren tipologia (9. grafikoa)

(9. grafikoa)




Egile emakumezkoa eta intzidentziaren tipologia (10. grafikoa)

(10. grafikoa)




Egilea gizonezkoa edo emakumezkoa izatearen eta intzidentzia tipologiaren arteko erlazioa

(11. grafikoa)




Biktimen generoaren ehunekoa

(12. grafikoa)




Biktimaren generoaren eta intzidentziaren tipologiaren arteko erlazioa (13. grafikoa)






Kausa kopurua, iturriaren arabera (14. grafikoa)



Iturri bakoitzeko intzidentzia kopurua, kausaren arabera (15. grafikoa)





ONDORIOAK

1

Intzidentzia gehien uzailean, abuztuan, irailean eta otsailean izaten dira. Hortaz, badirudi badagoela nolabaiteko urtarokotasuna. Argi eta garbi dago udan askoz gehiago izaten direla, baina ez dirudi intzidentzia horiek gaueko esparruekin lotuta daudenik. Beraz, esan dezakegu ugaltzearen arrazoia dela gizarte-interakzioa handiagoa dela udan. Horixe esaten da *Gorrito arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida*. Hala ere, Euskadiko 2021eko gorrito-istiluen txostenean esaten da hori ez dela aldagai esanguratsua.

3

Homofobia da kausarik zabaldiena:

23 kasu homofobiaren ondorioz izan dira, hau da, % 60,5. Horren atzetik, alde handiarekin, transfobia dator: 10 kasu, hau da, % 26,3. Hala ere, Ikusgunek Gasteizen (2021) sexu-orientazioaren eta genero identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko V. txostenaren sarreran azaltzen duenez, homofobiagatiko salaketan protagonismoa honelako azterlanen ibilbide laburraren ondorio izan daiteke; izan ere, denboran aurrera egin ahala, hobeto detektatzen dituzte udalerriko errealitate LFTBI+fobiko askotarikoak.

2

Zerbitzu eta espazio publikoetan gertatzen da intzidentzia gehien, 20 kasu (% 54), hain zuzen. Espazio erdi-publikoak batuta, kasuak 25 dira (% 67,6). Ondoren, espazio pribatuak datoz, hau da, etxebizitzak (% 16,2). Bereziki nabarmentzen dira, esparru sentikor gisa, tren edo tren-geltokia eta egoitza-baliabideak, publikoak izan nahiz diruz lagundutakoak izan. Aipatu behar da beste metodologia bat erabili izan balitz, intzidentzia gehiago bildu ahal izango zirela espazio birtualean.

4

Intzidentzien % 50ean hitzezko erasoak biltzen dira. Eraso mota hedatuena da. Atzetik datoz eraso fisikoak (% 29), mehatxuak (% 23,7) eta diskriminazioa (% 21,1). Beraz, intzidentzia gehienak zuzeneko erasoak dira¹³. Nabarmentzekoa da intzidentzien ia heren batean eraso fisikoa edo eraso fisikoa egiteko ahaleginak erregistratzen direla.

37 egoeretan, intzidentzia eragin duten edo erasotzaile izan diren 58 pertsona zenbatu dira,

¹³ Adierazi behar da intzidentzia batean eraso-mota desberdinak bildu daitezkeela, horregatik %100 baino gehiago dira. Bestalde, ezinbestekoa da gogoraraztea intzidentzia guztiak ez daudela indarkeriari lotuta. Batzuk ezjakintasunari lotuta daude.





5

banaka, bikoteka edo taldeka jarduten baitute. Ateratzen den ondorioetako bat da intzidentzia edo eraso gehienak gizonak egiten dituztela, guztizkoaren 45 baitira; eta gizonak %100 direla taldean egindako erasoetan¹⁴. Hortik ondorioztatzen da maskulinitatearen eredu hegemonikoa funtsezko faktorea dela erasotzaile gehienak gizonak izateko.

Kausa LGTBI+fobikoei dagokienez, emakume erasotzaileak espektro homofoboan kokatzen dira, batez ere. Hala ere, gizon erasotzaileak aintzat hartuz, askoz kausa gehiago agertzen dira: identitate edo adierazpen ez-bitarrekiko homofobia, transfobia eta fobia.

Gizonek gehien eragindako intzidentzien tipologia eraso fisikoa, hitzekoa eta mehatxuak dira. Emakumeen kasuan, diskriminazioa. Bi generoetako pertsonak egiten badute eraso, eraso fisikoa eta hitzekoa izan ohi da. Ez da jaso banaka aritzen diren emakumeen artean eraso fisikorik egin duenik.

6

Kasuen % 74,35ean biktimaren generoa gizonekoa da; % 12,15ean, emakumeekoa, eta % 5,4an identitatea disidentea da (bollerak eta ez bitarrak). Eraso edo intzidentziaren bat jasaten duten pertsonen banaka nahiz bikoteka interpelatzen zaie.

Emakumeei eta gizonari erasotzeko moduari dagokionez, ia ez dago alderik. Genero disidentea duten pertsonen kasuan, hitzeko erasoak, mehatxuak eta tratu apalesgarria jaso ohi dituzte.

Gasteizen (2021)
sexu-orientazioaren
eta genero
identitatearen aurka
izandako gertakariei
buruzko V. txostena

¹⁴ Kopurua handiagoa izan liteke; izan ere, lau kasutan ez dago argia erasoak taldean egin den ala ez.





7

Euskal LGBTI+ Behatokia da kasu gehien erregistratu dituen iturria: 12. Hala ere, bidalitako kasuen erdiak lehen mailako iturrietatik datoz, hala nola Eraberean¹⁵ saretik eta Ertzaintzatik. Kasu gehien ematen dituen bigarren iturria Donostiako Udaltzaingoa da, eta, ondoren, Berdindu Zerbitzua, LGBTI+ pertsonen informazioa ematekoa (Eusko Jaurilaritza). Garrantzitsua da esatea salaketa bat bera ere ez dela errepikatzen agente edo zerbitzu desberdinetan, hau da, salaketa jartzen duen pertsonak errekurso bakar batean jartzen du. Bestalde, hedabideek kasu berberak aipatzen dituzte gehienetan.

Amaitzeko, ondorioztatzen da horrelako azterlanak beharrezkoak direla, hainbat erakundetan erregistratutako gorabeherak biltzen baitituzte eta errealitate osatuagoa islatzen. Adibidez, Ertzaintzak eta Eraberean sareak erregistratutako datuak dira Euskadiko gorroto-istiluei buruzko 2021eko txostenean erabili direnak. Bi iturri horietan bi intzidentzia bildu dira, Donostian, 2021ean, eta hemen 19 jaso dira. Hori dela eta, aipatutako txostenean esaten den bezala, interesgarria litzateke udaltzainek erregistratutako intzidentziak ere kontuan izatea. Hala ere, hori ez litzateke nahikoa izango; izan ere, 19 kasutatik 8 agerian jarriko lirateke. Ildo horretatik, sarreraz azaldu den bezala, kontuan hartu behar da infrasalaketaren fenomenoak. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren arabera, % 80a irits daiteke¹⁶. Beraz, urte bakoitzean izan diren 18-19 kasuez gain, ziurrenik, Donostian, askoz ere intzidentzia, eraso, diskriminazio eta gorroto-delitu gehiago izan dira, motibazio LGBTI+fobikoa dutenak.

Euskadiko gorroto-
istiluei buruzko
2021eko txostena

¹⁵ LGBTI+ Gehitu elkarteak Eraberean sareko kidea da, eta Euskal LGBTI+ Behatokia ere bai. Horregatik, kasu batzuk erregistro desberdinetan errepikatzen dira.

¹⁶ Hala esaten da «Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko V. urteko txosten»ean (2021). Infrasalaketari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, gorroto-delituak Espainian izan duten bilakaerari buruzko txostena ere kontsulta daiteke.

GOMENDIOAK



Gomendio hauek Donostiako Udalarentzat dira, eta proposatzen diren neurriak haren eskumenekoak dira. Iradokizunak hiru ardatzetan banatzen dira:
ikertzea, artatzea eta prebenitzea.

Ikertzea

EDonostiako sexu eta genero disidentzien errealitatei buruzko azterlan espezifiko bat egitea, kontuan hartuko dituen bai LGBTBI+ pertsonen subjektibotasunak, bai herritar zisheteronormatiboek horiei buruz dituzten pertzepzioak¹⁷.

Donostian, urtero edo bi urtean behin, intzidentzia LGBTBI+fobikoen txostena egiten jarraitzea. Horrela, erregistratzeko eta biltzeko sistema hobetu ahal izango da; izan ere, Ikusgunek eta EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak¹⁸ adierazten duten bezala, ikerketak errepikatuz metodoa hobetzen da, errealitatea fideltasun handiagoz islatzea lortuz eta, ondorioz, eragiteko gaitasun handiagoa garatuz. Bestalde, txosten hori egiten jarraitzeak balioko du hirian LGBTBI+fobiari pultsua hartzeko, bilakaeraren berri jakinez eta ezartzen diren neurriek eragina izateko duten ahalmena egiaztatuz.

Lehenengo neurri gisa, 3. eranskineko txantiloia bidez, datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzea proposatzen da. Txosten honetarako kontsultatutako edozein eragileri bidali dakioke edo, bestela, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Negoziatuari.

Honako gai hauetan sakonduko duten **ikerketa espezifikoak sustatzea**:

- Transexualitate-egoeran dauden pertsonen gizarte eta lan egoera, bereziki emakume transexualena^{*19}.
- Intzidentziak edo eraso LGBTBI+fobikoak ikusten dituzten donostiarren erreakzioak.
- Xehetasun handiagoz aztertzea LGBTBI+fobia: adin-tarteak, asteko egunak, hiriko erreferenteen adierazpen LGBTBI+fobikoak, bilaketa aktiboa sare sozialetan...

¹⁷ 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.

¹⁸ Ikusgune behatokiari dagokio Gasteizen LGBTBI+fobia dela-eta izaten diren intzidentzien txostenak egitea, urtero, eta EHUko Katedrari, berri, Euskadin izaten diren gorroto-istiluen txostenak.

¹⁹ 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.





Arreta eta prebentzioa

Udal-estrategia bat garatzea, LGTBI+fobiaren arreta- eta prebentzio-prozesuak ezarriko dituen, tresnak, baliabideak eta zerbitzuak eraginkortasunez artikulatuz. Horretarako, LGTBI+ politika-plan²⁰ bat sortzea proposatzen da, adituak diren profesionalekin eta mugimenduarekin berarekin batera. Horretarako, ezinbestekoa izango da gaiarekin lotutako eragile anitzeko espazioak bultzatzea. Era berean, plana diseinatzeaz gain, jarraipen-batzorde bat sortzea gomendatzen da.

LGTBI+ pertsonen **ARRETA** ematea dela-eta, gomendatzen da honako ekintza hauek sartzea politika espezifikoaren planean:

- ✓ **Udal-zentroen** barne funtzionamenduan **LGTBI+fobiari aurre egiteko arauak eta jarduketa-protokoloak sustatzea**, biktima erdigunean jarrita²¹.
- ✓ **Transexualitate-egoeran** dauden pertsonak eta, bereziki, emakumeak, **gizarteratzeko eta laneratzeko programa bat sortzea**²².
- ✓ Eusko Jaurlaritzak EAEko udalentzat egindako Gorroto arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gidaren edukia egokitzea. Dokumentu honetan aipatzen den bezala, garrantzitsua da egokitzapen hori prebentziozko politika publikoekin osatzea, hala nola tokiko planarekin. Bestalde, prozesu hori arloko eragile estrategikoekin batera egitea gomendatzen da, bai pribatuekin bai publikoekin batera, adibidez txosten honetarako kontsultatutako eragileekin batera, zerbitzuak ez bikoizteko eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko.
- ✓ **Eraberean-en gida erreferentziatza hartzea** --Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza -- Oinarrizko gida izeneko-- eta gertutik jarraitzea Gorroto-istiluen kontra borrokatzeko Espainiako II. Ekintza Plana. Plan horrek honelako ekimenak jasotzen ditu, besteak beste: OSCE-ODIHRK²³ eta Gorroto Istiluen kontra Borrokatzeko Bulego Nazionalak garatutako jarduera onen bilduma bat egitea, Gorroto delituen biktimentzat Espainian dauden egitura eta zerbitzu nazionalen Ebaluazioa izeneko lantegia oinarri hartuta. ESTAR proiektua.
- ✓ **LGTBI+ politiken plana** ikuspegi intersektionalaz artikulatzea eta **hainbat sailerako planetan/** planekin zeharka jartzea, hala nola: garapenerako lankidetzak, aniztasuna eta kulturartekotasuna, gazteria eta haurtzarora, hezkuntza, genero-berdintasuna, sustapena, hirigintza...²⁴
- ✓ Ibilbide judizialik ez duten, baina eragindako kaltea konpontzen eta/edo LGTBI+ bizitzaren kalitatea hobetzen lagun dezaketen intzidentzien gaineko **gizarte-mobilizazioak ahalbidetzea eta laguntzea.**

²⁰ 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.

²¹ 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.

²² 2022ko ekainaren 23an onetsi zen, Udalbatzaren ohiko bilkuran, LGTBIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiarako Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 2020-2025 irizpenak 1.5, 3.1.3 eta 3.1.5 puntuetan gomendatzen duen bezala.

²³ Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoa.

²⁴ "Breaking down silos" metodologia..





Bestalde, LGTBI+ fobiaren **PREBENTZIOAREN** esparruan, honako ekintza espezifiko hauek gomendatzen dira:

- ✓ **Sexu eta genero aniztasunari buruzko prestakuntza** etengabe **ematea** Udalari lotutako sail, enpresa publiko eta erakundeetako **langile publikoei**. Udalak diruz lagundutako zerbitzuak sartzeara proposatzen da²⁵.
- ✓ **Mezu instituzionalen bidez, maskulinitatea deseraikitzen saiatzea, behin eta berriz**, eta erreferente maskulino berriak babestea.
- ✓ **Sentsibilizazio-kanpainak egitea gune estrategikoetan** (honako hauek lehenestea iradokitzen da: trena/tren-geltokia, gaueko aisialdia eta ostalaritza) eta, batez ere, **erasotzailearen ohiko profileraz zuzentzea**: gizona.
- ✓ **Erasoen aurrean, erantzukizunaz kontzientziatzeko kanpainak egitea**, eta oinarritzko arreta-jarraibideak ezagutaraztea: defentsa; biktimari laguntzea, salaketa jarri nahi duen ala ez kontuan hartu gabe, eta intzidentziaren berri ematea.
- ✓ **Kanpainak egitea LGTBI+ pertsonen eskubideei eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko**; izan ere, adibidez, biztanleriaren %5ek baino ez du ezagutzen Eraberean sarea²⁶.

Gorrito arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBI+ fobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida

Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza - Oinarritzko gida

Gorrito-istiluen kontra borrokatzeko Espainiako II. Ekintza Plana

LGTBIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiarako Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 2020-2025

Amaitzeko, gomendio horietaz gain, garrantzitsua da kontuan hartzea Donostiako LGTBI+ taldeak azken bi urteetan egin dituen eskaerak, hala nola kontsumotik urrun dauden aisialdi-eremuak; etxebizitzarako eskubidea; autokudeaketarako gaitasuna; autozainketa, borroka eta eraldaketa sareak sortzeko tokiak eskaintzea, etab. Ildo horretatik, LGTBIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiarako Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 2020-2025 irizpenak gomendatzen du, 3.4 puntuan, mundu osoan LGTBIQ pertsonen berdintasunaren aldeko mugimenduen lidergoa sustatzea. Azken batean, LGTBI+ pertsonak eskatzen dituzten baliabideak eta testuinguruak sustatzeak haien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuko ditu.

Amaitzeko, garrantzitsua da txosten honetan bildutako intzidentziak gertakari isolatutzat ez hartzea, diskurtso LGTBI+ fobikoetatik urrun daudelakoan. Erronka da ulertzea egiturazko indarkeriaren parte direla, eta sexu eta genero disidentziek oraindik ere bermatu gabe dituztela eskubide eta askatasun batzuk.

²⁵ 2022ko ekainaren 23an onetsi zen, Udalbatzaren ohiko bilkuran, lehen aipatutako Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpenaren 1.8 puntuan gomendatzen den bezala.

²⁶ Ikuspegi (2022). Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak.





ERREFERENTZIAK



Donostiako Udala.

39. akta, Udalbatzaren 2022ko ekainaren 23ko ohiko bilkurarena.

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (2021)

Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari – Berdintasunaren Batasunari egindako komunikazioari buruzko irizpena: LGTBIQ pertsonen berdintasunerako Estrategia 2020-2025.

García Dafonte, Zaira eta Expósito Alberdi, Jone (2018).

Bizikidetza aniztasunean. LGTBI+ populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan (2018).
Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gehitu Elkarte.

Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa (2021).

Espainian gorroto-delituak izan duten bilakaerari buruzko txostena (2021).

Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa (2021).

II. Gorroto-delituen aurka borrokatzeko ekintza-plana (2022-2024).

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Biltzen (2022).

Gorroto arrazista, xenofobo, antigitano eta LGTBIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida.

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Eraberean (2020).

Tratu-berdintasuna eta diskriminazioarik eza – Oinarrizko gida

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila eta EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra (2022).

Txostena: gorroto-istiluak Euskadin 2021.

Ikusgune, Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia (2021).

Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko V. txostena (2021).

Ikuspegi (2022).

Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzeptzioak eta jarrerak

Kualitate lantaldea eta Aldarte Elkarte (2018).

Desirak plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa.

Gasteizko Udala





ERANSKINA

1. GLOSARIOA

LGTBI+ari lotutako kontzeptuak

Bitarra (sistema)

Giza generoak bi modutan (maskulinoa eta femeninoa) soilik existitzen direla eta horiek jaiotzean esleitzen direlako ideia sustatzen duen sistema. Gizarte batek pertsonak gizon eta emakumeetan oinarritutako rol, identitate eta atributuetan hierarkikoki nola banatzen dituen deskribatzeko ere erabiltzen da kontzeptua.

Bollera

Lesbiana esateko ere erabiltzen da termino hori, baina, hark ez bezala, konnotazio politikoa egozten zaio. Era berean, emakume-identitatetik aldentzeko identitate-kontzeptu gisa erabiltzen da.

Zisexuala / Zisgeneroa

Jaiotzean egungo kanon sozialen arabera esleitutako generoarekin identifikatzen den pertsona, hau da, bulbarekin jaio eta emakume gisa identifikatzen dena eta zakilarekin jaio eta gizon gisa identifikatzen dena.

Zisheteronormatibitatea

Pertsona guztiak zis eta heterosexuak direlako espektatiba, ustea edo estereotipoa, edo normala edo onargarria izaera hori delakoa.

Disidentzia (identitatea edo adierazpena)

Alderdiaren, erlijioaren, kolektibo ideologikoaren, gizartearen eta abarren oinarri diren doktrinei, sinesmenei, sistemari eta abarri buruzko desadostasuna. Dokumentu honetan, heteroarauaren kontrako disidentzia gisa erabiltzen da.

Genero-adierazpena

Pertsona bat, testuinguru sozial eta une historiko jakin batean genero bakoitzari dagozkion patroien arabera, maskulinitzat edo femeninitzat identifikatzeko bidea ematen duten ezaugarri kulturalen adierazpena.

Heterosexuala

Gizonekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen emakumea edo emakumeei desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen gizona.

Genero-identitatea

Pertsona bat berezkotzat sentitzen, aitortzen edota izendatzen duen generoarekin identifikatzea. Sexu-diferentziaren sistema bitarretik aldentzen bagara, genero-identitate desberdinak aurki ditzakegu, gizon-emakume izatera mugatzen ez direnak.





LGTBI+

Lesbiana, gay, trans*, bisexual eta intersexual hitzen sigla. + sinboloa sistema bitar zisheteropatriarkalaren arau hegemonikoak azpiratzen dituzten gainerako genero-identitate, adierazpen, orientazio edota gorputz guztiak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da.

• **Lesbiana**

Beste emakume batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen emakumea.

• **Gaya**

Beste gizon batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen gizona.

• **Trans*a**

Jaiotzean esleitutako sexuarekin tradizionalki lotutako arau eta espektatiba sozialekin bat ez datorren identitatea edo genero-adierazpena duen pertsona. * sinboloa terminoak biltzen dituen errealitate ugariak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da, hau da, termino biltzaile gisa erabiltzen da.

• **Bisexuala**

Gizonekiko eta emakumeekiko desira sexual edo desira erromantikoa sentitzen duen pertsona (zis ala trans* diren alde batera utzita).

• **Intersexuala**

Zientifikoki maskulinoztat eta femeninoztat jotzen denaren ezaugarri biologiko sexual primario edota sekundario konbinatuekin jaiotzen den pertsona. Hau da, «ezaugarri maskulino» edota «ezaugarri femeninoen» arau soziala betetzen ez duten gorputzarekin jaiotzen diren pertsonak. Lau alderdi elkartzeko dira: ezaugarri kromosomikoak, hormonalak eta barruko eta kanpoko genitalak.

• **Queer-a**

Giza aniztasuna zentzu zabalean sustatzea, identitate finko eta estatikoetatik ihes egitea eta aldakortasunaren eta subertsioaren alde egitea xede duen gizarte-korrontea da. Batez ere AEBn hartu zuen indarra, 80ko eta 90eko hamarkadetatik aurrera.

• **Ez-bitarra**

Binarismotik kanpo dagoen genero-identitatea beren gain hartzen duten pertsonen aplikatzen zaien izendapena.





LGTBI+fobia

LGTBI+ kolektiboko pertsonetikiko ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke. Honako kasu espezifiko hauek daude:

- **Lesbofobia**

Lesbianismoarekiko edota lesbianekiko fobia.

- **Bollofobia**

Bollerismoarekiko edota bollerekiko fobia.

- **Homofobia**

Homosexualitatearekiko edota pertsona homosexualekiko fobia.

- **Transfobia**

Trans* egoera edota pertsonetikiko fobia.

- **Bifobia**

Bisexualitatearekiko edota pertsona bisexualekiko fobia.

- **Interfobia**

Egoera edota pertsona intersexualekiko fobia.

- **Enebefobia**

Zitazio, adierazpen edota identitate ez-bitarrarekiko fobia.

- **Lumafobia**

Luma duten pertsona edota adierazpenetikiko fobia.

Sexu-orientazioa

Beste pertsona batzuekin harreman afektibo-sexuala sortzeko desira sexual edota erromantikoa.

Patriarkatua

Menderatze-sistema soziala, emakumeen eta femeninotzat hartzen denaren mendekotasuna eta ikusezintasuna erreproduzitzeko ezarria. Matxismoan oinarritutako egiturazko desberdintasun-egoera bat sortzen du.

- **Zisheteropatriarkatua**

Pertsona zisexualen, zisgeneroen edota heterosexualen nagusitasuna barne hartzen duen kontzeptua.

Serofobia

Giza immunoeskasiaren birusa (GIB) duten pertsonenganako ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke.





Intzidentzia-erasoekin lotutako kontzeptuak

Eraso fisikoa / Lesioa

Pertsona bati gorputzean egindako eraso guztiak dira, hala nola kolpeak ematea, objektuak jaurtitzea, giltzapetzea, astinduak ematea eta marruskatzea, kalte fisikoak eragin ditzaketen beste jokabide batzuen artean. Hau da, beste pertsona baten gorputz-osotasunari edo osasun fisiko edo mentalari kalte egitea.

Hitzezko erasoa / Iraina

Indarkeria mota bat da, mezu edo diskurtso mingarri batekin beste pertsona bati min egitea xede duena. Hau da, kalte egiten dio beste pertsona baten duintasunari, haren ospea gutxitu edo haren buruestimuaren aurka egiten baitu.

Mehatxua

Delitu bat da, zeinaren bidez norbaiti iragartzen zaion hari edo haren ingurune hurbileneko beste pertsona batzuei zuzenean kalte egin edo arriskua eragin nahi zaiela.

Kalumnia

Delitu bat da, zeinaren bidez norbaiti delitu-egitate bat faltsuki egozten zaion, hau da, pertsona bat bidegabeki salatzen da, delitu bat egiteagatik.

Derrigortzeak / Larderia

Delitu bat da, zeinaren bidez indarkeria erabiltzen den norbaiti legez debekatuta ez dagoen zerbait egitea eragozteko edo nahi ez duen zerbait, bidezkoa edo bidegabea, egitera behartzeko.

Kalte materialen delitua

Jabetza publiko edo pribatuko ondasun material edo immaterial bat suntsitzea edo hondatzea.

Gorroto-delitua

Edozein arau-hauste penal, pertsonen edo jabetzen aurkakoa barne, zeinean biktima, lokala edo arau-haustearen helburua aukeratzen den hark talde jakin batekin duen benetako edo hautemandako konexio, sinpatia eta filiazioagatik, talde hari laguntzeagatik edo hango kide izateagatik, hala nola benetako edo hautemandako sexu-orientazio, genero-identitate edo genero-adierazpenagatik.

Ezjakintasuna

Gauza bati buruzko informaziorik edo haren izaera, ezaugarriak eta harremanak ulertzeko informaziorik eza.





Diskriminazioa

Ezaugarri fisikoetan, jatorri nazional edo sozialean, kolorean, sexua-generoan, hizkuntzan, erlijioan, iritzi politikoan, posizio ekonomikoan edo beste edozein gizarte-egoeratan oinarritutako bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasuna, pertsona guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasun-baldintzetan aitortzea, gozatzea edo baliatzea deuseztatzea edo gutxitza xede duena.

Gorroto-diskurtsoa

Komunikazio-ekintza bat da, historikoki arraza, etnia, erlijio, sexu-orientazio edo sexu-identitate, desgaitasun eta abarrengatik diskriminatua edo jazarria izan den pertsona-talde baten inguruan iritzi dogmatiko eta suntsitzaile bat sustatzea eta elikatzea helburu duena.

Gorroto-intzidentzia

Biktimak edo beste edozein pertsonak arrazistatzat, xenofobotzat, LGBTBI+fobikotzat edo bestelako intolerantziatzat hartzen duen aurreiritziko ekintza, nahiz eta delitua ez izan.

Lapurreta

Indarra edo larderia erabiliz inoren ondasunez edo eskubideez jabetzeko delitua.

Tratu apalesgarria

Biktimei beldur-, larritasun- eta gutxiagotasun-sentimendua eragin diezaiekeen tratua, haiek umiliatu, doilortu eta, hala badagokio, haien erresistentzia fisiko edo morala urra dezaketenak.





INTZIDENTZIA LGTBI+FOBIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEA			
Intzidentzia-kodea ²⁷ :	Data:	Helbidea:	
Deskribapena:			
DATU-BILKETA			
Intzidentzia mota: ☐ Eraso fisikoa Lesioak ☐ Mehatxuak ☐ Derrigortzeak Larderia ☐ Gorroto-diskurtsoa ☐ Tratu apalesgarria ☐ Kalteak ☐ Hitzezko erasoak Irainak ☐ Kalumniak ☐ Lapurreta ☐ Kalte materialak ☐ Diskriminazioa ☐ Ezjakintasuna	Kausa: ☐ Homofobia ☐ Lesbofobia ☐ Bifobia ☐ Transfobia ☐ Interfobia ☐ Enebefobia ☐ ...	Leku mota: ☐ Bide publikoa ☐ Lorategia, parkea... ☐ Garraiobidea: trena, autobusa... ☐ Bizilekua ☐ Gaueko aisialdia ☐ Beste batzuk	Honela erregistratua: ☐ Aurrez aurre ☐ E-maila ☐ Tel. ☐ Sare sozialak ☐ ...
Biktimaren profila: • Generoa (autodeterminatua): • Adina: ☐ Adingabeak ☐ 18-25 ☐ 26-40 ☐ 41-50 ☐ 51-65 • Jatorri / Pertenentzia kulturala: • Dibertsitate funtzionala: BAI / EZ • Gizarte-bazterketa jasateko arriskua: BAI / EZ		Erasotzailearen profila: • Generoa (autodeterminatua): • Adina: ☐ Adingabeak ☐ 18-25 ☐ 26-40 ☐ 41-50 ☐ 51-65 • Jatorri / Pertenentzia kulturala: • Dibertsitate funtzionala: BAI / EZ • Gizarte-bazterketa jasateko arriskua: BAI / EZ	

²⁷ Urtea. Intzidentzia-zenbakia ordena korrelatiboan. Adibidez: 23.1, 23.2




ERANSKINA

3. TAULA. DATU GRAFIKOAK

Intzidentziak, guztira, hilabeteka

1. grafikoari dagokio




Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	
1	2	1	2		2	5	2	3		1		2021
	3	2	1	1		2	5	2	1		1	2022
1	5	3	3	1	2	7	7	5	1	1	1	GUZTIRA

GUZTIRA: 37 (19: 2021 / 18: 2022)

Intzidentziak, guztira, lekuaren eta leku motaren arabera

2. grafikoari dagokio




ZERBITZU PUBLIKOAK	Egoitza-baliabidea	3
	Zerbitzu eta baliabide publikoen bulegoak	3
ESPAZIO PUBLIKOAK	Parkea	1
	Hondartza	1
	Bide publikoa	5
	Bide publikoa. Gaueko aisialdia	3
	Trena / Tren-geltokia	4
ESPAZIO ERDI PUBLIKOAK	Ostalaritza-establezimendua	3
	Merkataritza-establezimendua	2
ESPAZIO PRIBATUAK	Bizilekua	6
ESPAZIO BIRTUALA	Birtuala	3
EZ DAKIGU	Ez dakigu	4



Intzidentzia, guztira, kausaren arabera


3. grafikoari dagokio



Bifobia	1
Bollofobia	1
Homofobia	23
Enebefobia	2
Serofobia, homofobia edo lumafofia. Datuak falta dira zehazteko	1
Transfobia	10
Batura, guztira	37


Intzidentziaren ehunekoa, gorabehera/eraso motaren arabera

4. grafikoari dagokio



Jazarpena	2	%5,4
Eraso fisikoa	11	%29,7
Hitzezko eraso	19	%51,4
Giro baztertzalea	1	%2,7
Mehatxuak	9	%24,3
Derrigortzak	2	%5,4
Kalte materialak	2	%5,4
Ezjakintasuna	2	%5,4
Diskriminazioa	8	%21,6
Lapurreta	1	%2,7
Ez dakigu	1	%2,7
Tratu apalesgarria	4	%10,8






Intzidentziaren egileen generoa, guztira

5. grafikoari dagokio

Egileen generoa	Guztira
Gizonezkoa	45
Emakumezkoa	6
Ez dakigu	7




Egileen ehunekoa, generoaren arabera

6. grafikoari dagokio

Egileen generoa	Kasuak
Gizonezkoa (banaka)	17
Gizonezkoa (taldean)	3
Emakumezkoa	3
Biak	7
Ez dakigu	1


Egilearen generoaren eta kausaren erlazioa

7. grafikoari dagokio



	Bifobia	Bollofobia	Homofobia	Enebefobia	Enebefobia, homofobia	Serofobia, homofobia edo lumafobia. Ez da zehaztu	Transfobia	Guztira
Gizona		1	18	2	1		2	23
Emakumea			2			1		3
Biak			1				2	3
Ez dakigu	1		2				5	8





Egilearen generoaren eta intzidentziaren tipologiaren arabera (8. grafikoa)

Egile gizonezkoa eta intzidentziaren tipologia (9. grafikoa)

Egile emakumezkoa eta intzidentziaren tipologia (10. grafikoa)

Egilea egizonezko edo emakumezko izatearen eta tipologiaren arteko erlazioa (11. grafikoa)


Eraso mota	Guztira	Guztira	G	G	E	E	Biak	Biak	Ez dakigu	Ez dakigu	Ez dago	Ez dago
Jazarpena	2	%3,2	1	%1,6	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0
Eraso fisikoa	11	%17,7	9	%14,5		%0,0	2	%3,2		%0,0		%0,0
Hitzezko erasoa	19	%30,6	14	%22,6		%0,0	2	%3,2	3	%4,8		%0,0
Giro baztertua	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0		%0,0	1	%1,6
Mehatuak	9	%14,5	7	%11,3	1	%1,6	1	%1,6		%0,0		%0,0
Derrigortzeak	2	%3,2	1	%1,6		%0,0		%0,0	1	%1,6		%0,0
Kalte materialak	2	%3,2	2	%3,2		%0,0		%0,0		%0,0		%0,0
Ezjakintasuna	2	%3,2		%0,0		%0,0		%0,0	2	%3,2		%0,0
Diskriminazioa	8	%12,9	2	%3,2	2	%3,2	1	%1,6	3	%4,8		%0,0
Lapurreta	1	%1,6	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0		%0,0
Ez dakigu	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0	1	%1,6		%0,0
Tratu apalesgarria	4	%6,5	3	%4,8	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0
Guztira	62	%100	40	%64,5	5	%8,1	6	%9,7	10	%16,1	1	%1,6





Biktimen generoaren ehunekoa


12. grafikoari dagokio



	Gizona	Emakumea	Biak	Disidentea (Bollera eta EB)	Ez dakigu	Denak	Guztira
Kasuak	27	4	1	2	2	1	37
%	%72,97	%10,81	%2,70	%5,41	%5,41	%2,70	%100,00

Biktimaren generoaren eta intzidentziaren tipologiaren arteko erlazioa

13. grafikoari dagokio



Eraso mota	Guztira	Guztira	G	G	E	E	Biak	Biak	Ez dakigu	Ez dakigu	Ez dago	Ez dago
Jazarpena	2	%3,2	1	%1,6	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0
Eraso fisikoa	11	%17,7	9	%14,5		%0,0	2	%3,2		%0,0		%0,0
Hitzezko erasoa	19	%30,6	14	%22,6		%0,0	2	%3,2	3	%4,8		%0,0
Giro baztertuailea	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0		%0,0	1	%1,6
Mehatxuak	9	%14,5	7	%11,3	1	%1,6	1	%1,6		%0,0		%0,0
Derrigortzeak	2	%3,2	1	%1,6		%0,0		%0,0	1	%1,6		%0,0
Kalte materialak	2	%3,2	2	%3,2		%0,0		%0,0		%0,0		%0,0
Ezjakintasuna	2	%3,2		%0,0		%0,0		%0,0	2	%3,2		%0,0
Diskriminazioa	8	%12,9	2	%3,2	2	%3,2	1	%1,6	3	%4,8		%0,0
Lapurreta	1	%1,6	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0		%0,0
Ez dakigu	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0	1	%1,6		%0,0
Tratu apalesgarria	4	%6,5	3	%4,8	1	%1,6		%0,0		%0,0		%0,0
Guztira	62	%100	40	%64,5	5	%8,1	6	%9,7	10	%16,1	1	%1,6






Kausa kopurua, iturriaren arabera

14. grafikoari dagokio


Udala	1
Sare sozialak	1
E-maila	1
D. Piratak	2
Ertzaintza	3

Eraberean - Gehitu	4
Komunikabideak	5
Berdindu	8
Udaltzaingoa	9
Behatokia	12



Iturri bakoitzeko intzidentzien kopurua, kausaren arabera

15. grafikoari dagokio



	Bifobia	Bollofobia	Homofobia	Enebefobia	Enebefobia, homofobia	Serofobia, homofobia edo lumafofia. Ez da zehaztu	Transfobia	Guztira
Udala							1	1
Sare sozialak			1					1
E-maila							1	1
Donostiako Piratak					1		1	2
Ertzaintza			2				1	3
Eraberean - Gehitu			3	1				4
Komunika-bideak		1	3				1	5
Berdindu	1		1			1	5	8
Udaltzaingoa			9					9
Behatokia			11	1				12





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Giza Eskubideak
Derechos Humanos